

EUSKARABENTURA ESPEDIZIOA 2024

IZEN-EMATEAREN OINARRIAK

ZER DA?

EuskarAbentura Espedizioa 2024 (7.edizioa) 125 gaztek osatutako espedizioa izango da, 2024ko uztailaren 1etik 31ra Euskal Herria oinez eta euskaraz zeharkatuko duena.

PARTE-HARTZEKO BETEKIZUNAK

- ADINA: 2007 edo 2008 urteetan jaioa/sortua izan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako gazteentzako.
2006, 2007, 2008 eta 2009 urteetan jaio/sortua izan Lapurdi, Baxe-Nafarroa, Zuberoa eta diasporako gazteen kasuan.
- HIZKUNTZA: Euskaraz jakin
- JATORRIA: **Zazpi lurralde euskaldunetatik** zein **diasporatik** datozen gazteak.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO

FORMULARIOA BETE Hautagaitza aurkezteko, www.euskarabentura.eus webgunean, parte-hartu ataleko “Hautagaitzak 2024” orrialdean aurkituko duzuen izen-emate formularioa bete behar duzue. Bertan hautagaiaren eta tutore/gurasoen datuak bete ondoren jarraian azaltzen diren bi dokumentu hauen esteka/lotura txertatu beharko da formularioaren barruan :

1. AURKEZPEN BIDEO BAT

Gehienez minutu bateko bideo labur bat. Kontaiguzu nor zaren, EuskarAbenturan zergatik parte hartu nahi duzun, espediziotik espero duzuna, zein ekarpen egingo diozun taldeari... zu pixkatxo bat ezagutzeko aukera izan nahi dugu.

2. PROIEKTU BAT

Hautagai bakoitzak banakako proiektu edo lan bat egin beharko du. Proiektu hori egiteko sei formatu ezberdin dituzu aukeran, horietako batean proposatzen dizkizugun hiru gaietako bat jorratu beharko duzu

(Kontuz! Proiektu mota batzuetan dokumentu bat baino gehiago bidali beharko da. Ondo begiratu hurrengo orrietako baldintza taulak.)

PROIEKTUA EGITEKO GAIAK (2024)



EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK

Euskara hizkuntza moduan indartzeko, 1968. urtean euskara batua sortu zuen Euskaltzaindiak. Gure hizkuntza hain anitza izanik, lurraldez lurralde eta herriz herri, modu ezberdinetan hitz egin, ahoskatu eta idazten zen. Euskararen erabilera orokortu eta prestigioa irabazi nahi baziren, hau da, instituzioetan sartu, komunikabideak sortu, oinarritzeko hezkuntzan eta unibertsitatean erabili, herritar ezberdinen arteko ohiko hizkuntza bihurtu, besteak beste, euskara estandar bat zehaztu beharra zegoen. Horrek, noski, gizarte mailan hainbat eztabaida sorrarazi zituen, aldeko zein aurkako iritzia sortu ziren. Izan ere, euskara batua, helburu hauek lortu ahal izateko moldatu zen hizkuntza aldaera bat da, Euskal Herriko euskalki ezberdinekin osatu zena. Halaber, hainbat lagun beldur ziren euskararen bateraketa edota estandarizazio honek euskalkien kontserbazioan eragingo ote zuen. Aitzitik, batua euskaldun askoren komunikatzeko bidea da egun, izan esparru formalean eta informalean, eta, era berean, euskalkiak hein handi batean mantendu egin direla esan daiteke.

Edonola ere, euskaldunek euskara batua onartu dutela eta zilegitasuna eman diotela uste al duzu? Euskara batuak euskalkiak zapaltzen edota baztertzan dituela uste duzu? Edo alderantziz, euskalkiek prestigio gehiago dutela esango zenuke? Antagonikoak al dira? Bestalde, euskara batuak euskal herritarren sarea bermatzen duela esango zenuke? Zenbateraino da baliagarria edota garrantzitsua euskara batua euskaldunontzat? Bestalde, euskara batuak euskal herritarren sarea bermatzen duela esango zenuke? Zenbateraino da baliagarria edota garrantzitsua euskara batua euskaldunontzako? Nola irudikatzen dituzu, esaterako, hezkuntza sistema edo komunikabideak euskara baturik egongo ez balitz? Nola moldatuko ginatke euskalki ezberdinetan mintzo garen euskaldunok euskara batua existituko ez balitz? Amaitzeko, euskalkiak Euskal Herriko aniztasunaren adierazgarria dira, baita nortasunerako elementu garrantzitsua ere. Zein egoeratan ikusten dituzu euskalkiak? Zein da Euskal Herrian euskalkiek duten tokia? Zaindu beharra dagoela uste duzu? Horrela izatekotan, nola egin liteke hori?



EMAKUMEAK ETA KIROLA

Harremantzeko modua, elkarbizitzeko era, emozioen iturri, identitateen indargarri, osasunaren sorburu eta baita negozio ere, guzti hori da kirola.

Gizartea, kirol munduan, gizon eta emakumeen arteko desberdintasun honen erakusleho izan da urteetan zehar, eta neurri batean, konplize ere bai. Kirol munduan emakumeen presentzia, parte-hartzea eta ordezkaritza jarduera zehatz batzuetara mugatu ohi da, hain zuzen ere feminitatearekin lotzen ditugun ezaugarriak dituzten kirol horietara. Gaur gaurkoz "nesken" eta "mutilen" kirolak argi eta garbi identifikatzen jarraitzen dugu, feminitatearekin eta maskulinitatearekin duten loturaren arabera: gizarteak irakatsitako genero kodeen arabera, alegia.

Kirol munduko topikoek emakume zein gizonezkoei kirol jakin batzuk egitera bultzatzen gaituzte eta sakon ainguratutako pentsaera hauekin jarraituz gero, esparru honetan "berdintasun" hitza hankamotz gelditzen da. Honekin batera diskriminazioa nagusi izaten da jarduera fisikoko esparru askotan, hots, matxismoaz ari gara.

Beraz, egun kirolaren esparruan parekotasunik ba al dago emakume eta gizonezkoen artean? Emakumeek mutilek adina kirol egiten dutela esango zenuke? Kasualitatea al da hori?

Nondik hasi beharko ginatke pentsaera edota topiko hauek ezabatzen? Ezagutzen al duzu genero aurreiritziak hautsi dituen kirolariren bat? Zein da zure kirolari erreferentea eta zergatik?



UTOPIA

Eduardo Galeanok behin esan zuen: "Utopia ortzemugan dago. Bi pauso ematen ditut gerturatzeko, baina bi pauso urrunago joaten da; hamar pauso hurbiltzen naiz eta ortzemuga hamar pauso aldentzen. Beraz, zertarako utopia? Horretarako, ba: ibiltzeko."

Historian zehar pertsonok etengabe irudikatu izan dugu bizi ginena baino hobea izango zen etorkizun ideal bat. Horretarako, norbera bizi den errealitatearen azterketa eta kritika egin beharra dago: ondo dagoena, aldatu nahi duguna eta desagerrarazi nahi duguna identifikatuko ditugu elementu horiek mantendu, moldatu edota desagerrarazteko.

Zaila dirudi gaur egun etorkizuna nolakoa izango den irudikatzea, batez ere bizi ditugun aldaketak, krisi klimatiko eta ekonomikoak eta nazioarteko gerrak kontuan izanik. Aitzitik, hau da 2.undu20 egokiena idealistak izateko, gure ametsetako mundua irudikatze eta bertara iristeko bideak pentsatzeko. Ez da errealista izateko momentua, pentsa dezagun ezinezkoa dirudien jendarte eta 2.undu perfektu bat!

Nola irudikatzen duzu etorkizuna? Mundu horretako zein elementu ditugu gaur egun eta zeintzuk aldatu dira? Zer egin behar dugu 2.undu perfektu bat egikaritzeko?

INFORMAZIO ITURRI ETA DOKUMENTAZIORAKO IRADOKIZUNAK:

EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK

- EUSKARA BATUA: KEZKA ZENBAIT
<https://www.berria.eus/paperekoa/1934/005/001/2018-09-30/euskara-batua-kezka-zenbait.htm>
- EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK:
<http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/49689.pdf>
- ERREGISTROAK BEREIZI EZINIK
<https://www.berria.eus/paperekoa/1938/004/001/2016-10-23/erregistroak-bereizi-ezinik.htm>
- BATUA VERSUS EUSKALKIA?
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/1726/batua-versus-euskalkia>
- EUSKARAREN BATASUNA
http://euskalkiak.eus/euskararen_batasuna.php

EMAKUMEA ETA KIROLA

- EMAKUMEA ETA KIROLA. ORAINDIK JOKOZ KANPO.
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/1966/emakume-a-eta-kirola-oraindik-jokoz-kanpo>
- EMAKUME KIROLARIAK; GIZONEN ARTEAN BIDEA EGITEN.
<https://www.naiz.eus/eu/info/especial/20230307/emakume-kirolariak-gizonen-artean-bidea-egiten>
- NESKAK ETA MUTILAK ELKAR JOKA.
<https://www.berria.eus/ikargela/berriak/xehetasuna/neskak-eta-mutilak-elkar-joka>
- LUR ERREKONDO
<https://www.berria.eus/ikargela/berriak/xehetasuna/lur-errekondo-emakume-dezente-dago-herri-kiroletan>
- KIROL OHITURAK
<https://glosario.pikaramagazine.com/glosario.php?lg=eu&let=g&ter=gorputz-eta-kirol-ohiturak>

UTOPIA

- UTOPIA:
<https://www.berria.eus/ikargela/berriak/xehetasuna/layla-martinez-utopien-funtzioa-energien-aktibazioa-da>
- ERREALITATE IDILIKOA NAHI DUZUNEAN.
<https://www.rekursosdeautoayuda.com/eu/utopia/>
- HAMAIIKA DESIO UTOPIARAKO.
<https://www.argia.eus/albistea/hamaiika-desio-utopiarako>
- PARISKO KOMUNA
<https://www.argia.eus/efemerideen-kanala/parisko-komuna-abiatu-zuten>

ADI! Kontuan hartu beharrekoak:

- EuskarAbentura Elkartek izen-ematean proiektu guztiak jasotzen ditu, baina elkarteak ez da balorazioaz arduratzen.
- Proiektu guztiak Eusko Ikaskuntzako eta Puntu Eus Fundazioko kideek baloratzen dituzte elkarteak emandako irizpideen arabera.
- Proiektuak baloratzaileri bidaltzerakoan anonimotasuna bermatzeko ziurtatu ezazue proiektuen barruan EZ dadila zuen izen-abizenik/deiturarik agertu.
- Elkartek baloratzaileri bidalketa egiterakoan proiektuetako artxibo/fitxategi guztien izenak kodifikatu egiten ditu.
- Proiektuak bidali aurretik ondo irakurri hurrengo taulan ageri den informazioa eta egin beharrekoak.


PROIEKTUEN 6 FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKO DOKUMENTUAK		
 HISTORIKOA	 LITERARIOA	 IKUS-ENTZUNEZKOA
1.TESTUA	1.TESTUA	1.BIDEOA
- Luzeera: 3-5 orrialde (azala aparte) - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroarte : 1,5 - Anexorik ez - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN - ARTXIBOA/FITXATEGIA IZENDATU HONELA: Abizen/deitura1+Abizen/deitura2_Izena Adibidea: MartínezLópez_Amaiur	- Luzeera: (azala aparte) Olerkia: 3 orrialde Prosa: 3-5 orrialde - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroarte: 1,5 - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN - ARTXIBOA/FITXATEGIA IZENDATU HONELA: Abizen/deitura1+Abizen/deitura2_Izena Adibidea: MartínezLópez_Amaiur	- Iraupena: 2-5 minutu - Generoa: dokumentala/fikzioa - Hizkuntza: Euskara - Formatua: MP4 edo AVI eta WETRANSFER esteka/lotura batean bidali - EZ DADILA EGILEAREN IZENA AGERTU BIDEOAN - ARTXIBOA/FITXATEGIA IZENDATU HONELA: Abizen/deitura1+Abizen/deitura2_Izena_bideoa Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_bideoa
		2.AZALPEN TESTUA
		- Luzeera: 2-3 orrialde (azala aparte) - Edukia: ekoizpen prozesuaren azalpena. Erabilitako baliabideak, gaiaren hautaketaren zergatia, izandako zailtasunak... - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroarte: 1,5 - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN - ARTXIBOA /FITXATEGIA IZENDATU HONELA: Abizen/deitura1+Abizen/deitura2_Izena_azalpena Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_azalpena
ADI! KASU! Baldintza hauek betetzen ez dituzten proiektuak zuzenean baztertuak izango dira, ez dira ebaluatzerantz bidaliko eta ez dira parte-hartzaileen hautaketan kontuan hartuko.		

 MUSIKALA	 PLASTIKOA	 SORMEN DIGITALA
1.AUDIOA - Iraupena: 2-8 min - Hizkuntza: Euskara - Formatua: MP3 edo AVI eta WETRANSFER esteka/lotura batean bidali <i>* Abesti ezagunen bertsioak onartuko dira BAINA konposizio musikal originalak hobeto baloratuko dira.</i> - ARTXIBOA/FITXATEGIA IZENDATU HONELA: Abizen/deitura1+Abizen/deitura2_lzena_audio MartínezLópez_Amaiur_audioa	1.ARTELANA - Gehienezko tamaina: 50x70x20. Neurri horietara egokitzen ez diren proiektuak ez dira onartuko. - Materiala/teknika: Askea (beira eta manipulatzeari arriskutsuak izan daitezkeen materialak ez erabili) - EGILEAREN IZENA EZ DADILA AGERTU GOGORATU! Beranduenez martxoaren 8rako artelan originala hurrengo helbidera iritsi behar da eta postaz bidaliz gero beranduenez martxoaren 13rako. Helbidea: EuskarAbentura Elkartea Errotatxu Industrialdea (GetxoGas) Z.G. 48993 – Getxo Gasolindegiko dendan utzi <i>*Aurkeztutako proiektuak ezingo dira berreskuratu.</i>	1. GARATUTAKO PROIEKTUA -Proiektua ikusteko edota deskargatzeko esteka/lotura azalpen testuaren baitan bidali. - Power Point-ak ez dira onartzen.
2.AZALPEN TESTUA - Luzeera: 2-3 orrialde - Edukia: Obraren azalpena + Partitura/Hitzak - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroartea : 1,5 - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN - ARTXIBOA/FITXATEGIA IZENDATU HONELA: Abizen/deitura1+Abizen/deitura2_lzena_a zalpena Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_azalpena	2.AZALPEN TESTUA - Luzeera: 2-3 orrialde - Edukia: Obraren garapenaren eta kontzeptuaren azalpena - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroartea : 1,5 - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN - ARTXIBOA/FITXATEGIA IZENDATU HONELA: Abizen/deitura1+Abizen/deitura2_lzena_a zalpena MartínezLópez_Amaiur_azalpena 3.OBRAREN ARGAZKIA - Formatua: PDF - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA ARGAZKIAN - ARTXIBOA/FITXATEGIA IZENDATU HONELA: Abizen/deitura1+Abizen/deitura2_lzena_a rgazkia Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_argazkia	2.AZALPEN TESTUA - Luzeera: 2-3 orrialde (azala aparte) - Edukia: produktuaren ideia, erabilitako teknologiaren azalpena, tresnaren azalpena (pantaila kapturekin) eta zailtasun nagusien ebazpena. - Hizkuntza: Euskara - Formatua: PDF - Letrakera : Times New Roman 12 - Lerroartea : 1,5 - EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN BARRUAN. - ARTXIBOA/FITXATEGIA IZENDATU HONELA: Abizen/deitura1+Abizen/deitura2_lzena_a zalpena Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_azalpena
ADI! KASU! Baldintza hauek betetzen ez dituzten proiektuak zuzenean baztertuak izango dira, ez dira ebaluatzerantz bidaliko eta ez dira parte-hartzaileen hautaketan kontuan hartuko.		


Martxoaren 8ra arte (barne)	Izen-emate epea: Proiektua eta aurkezpen bideoa bidali
Apirilak 24	Behin-behineko hautatuen zerrenda argitaratuko da webgunean. Hautatuei jakinarazpena bidaliko zaie posta elektroniko bidez.
Apirilak 24 – Maiatzak 2	Epe honen barruan plaza BAIEZTATU (bermearen ordainketa eginez) edo plazari UKO egiten diozun adierazi beharko duzu. Horretarako: - Plaza BAIEZTATZEKO Behin-behineko hautatuek esleitutako plaza gordetzeko eskatuko zaien BERMEAREN ORDAINKETA (190 eurokoa) egin eta ORDAINAGIRIA bidali beharko dute izenematea@euskarabentura.eus helbidera. Ordainketaren KONTZEPTUAN: Abizena+Izena+24 Adib: Martínez Amaiur 24 Jarraian eman beharreko pausuak mezu baten bidez jakinaraziko dizkizuegu. (Dokumentazio bidalketa) - Plazari UKATZEKO izenematea@euskarabentura.eus helbidera idatzi plazari uko egiten diozula adieraziz. Mezuaren kontzeptuan “Plazari UKO” jarriz.
KONTUAN EDUKI Espedizioan parte hartzeko hautatuak izan diren gazteetatik baten batek bere plazari uko egingo balio edota plaza gordetzeko derrigorrezkoa den bermea ordainduko ez balu bere plaza itxaron zerrendan geratu diren gazteei eskainiko zaie. Kasu horietan:	
Maiatzak 2 – Maiatzak 9	Itxaron zerrendatik sartu diren hautatuentzako: - Plaza BAIEZTATZEKO Behin-behineko hautatuek esleitutako plaza gordetzeko eskatuko zaien BERMEAREN ORDAINKETA (190 eurokoa) egin eta ORDAINAGIRIA bidali beharko dute izenematea@euskarabentura.eus helbidera. Ordainketaren KONTZEPTUAN: Abizena+Izena+24 Adib: Martínez Amaiur 24 - Plaza UKATZEKO izenematea@euskarabentura.eus helbidera idatzi plazari uko egiten diozula adieraziz. Mezuaren kontzeptuan “Plazari UKO” jarriz. Jarraian eman beharreko pausuak mezu baten bidez jakinaraziko dizkizuegu. (Dokumentazio bidalketa)
Maiatzak 16	Hautatuak izan diren eta bermea ordaindu duten gazte guztiek eskatuko zaien DOKUMENTAZIOA bidaltzeko AZKEN EGUNA .

BIDEO ETA FITXATEGI ASTUNAK NOLA BIDALI


1. **urratsa:** Sartu “www.WeTransfer.com” webgunera zure nabigatzailean.



- 2. **urratsa:** “Upload files” ataleko borobil urdinari sakatu eta zure ordenagailuko artxiboetara bideratuko zaitu. Jarraian artxiboa/fitxategia aukeratu eta egin klik gainean.



3. urratsa: artxiboa/fitxategia aukeratu ostean, **idatzi** NORI bidaltzen diozun (izenematea@euskarabentura.eus) eta NOR zaren zu (**zure** **posta elektronikoa**, adibidez: amaiairujo@gmail.com)



-Lehenengo: **NORI** bidaltzen diozun
izenematea@euskarabentura.eus
-Bigarren: **NOR** zaren zu (posta elektronikoa pertsonala)

4. urratsa: “Transfer” atalean klikatu eta bidaltzeko prestatuko da ondorengo irudian ikusi daitekeen moduan. Ehuneko ehunean dagoenean **BIDALI DA!**

